

# Hedagarria eta moldagarria den artelan bat



Mikel Cabrerizoren lanetatik eta egiteko moduetatik abiatuko gara artearen nozioari buruz hausnartzeko, eta originaltasunaren eta jeniotasunaren kontzeptuetan sakontzeko. Mundu artistikoaren irudi ikonikoak beste testuinguru, formatu eta gorputz batzuetara eramango ditugu, zentzu eta erabilera berriak emanez eta gure errealitateetara hedatuz.

## Helburuak

- Mikel Cabrerizoren obrara eta lan-prozesuetara hurbiltzea.
- Artearen nozioa zabaltzea, artelanei buruz dugun ideia geldia (jatorrizko objektu eder eta bakarra direla, alegia) haustea.
- Kontzeptuzkoa eta ludikoa dena oinarri hartuta, bizitza eta artea konektatzeko teknika, prozedura eta moduak esperimentatzea.
- Umorea eta jabetzea erabiltzea arte-sorkuntza garaikideko estrategia gisa.

## Aipamenak

Arteari eta jabetzeari buruzko oharra:

- "Los orígenes de apropiacionismo: postmodernidad y crítica" (Apropiacionismoaren jatorriak: postmodernitatea eta kritika). Sofia Fernández Álvarez-en artikulua: <https://original-vs-copy.interartive.org/2015/07/apropiacionismo>

- <https://es.wikipedia.org/wiki/Apropiacionismo>

- Bideoa: Apropiación en el arte ¿original o copia? (Jabetzea artean, originala edo kopia?), Rafael López Borrego. 11 min: <https://www.youtube.com/watch?v=pWeiTuElbG8>

Obra eta proiektu zehatzak (arte eta jabetzea):

- Cindy Sherman: <https://historia-arte.com/obras/retratos-historicos>

- Vik Muniz: <https://elbabenitez.com/es/artist/vik-muniz/>

- Sherrie Levine: <https://www.fundacionjumex.org/es/fundacion/coleccion/5-fountain-buddha-urinario-buda>

- Azken Afariaren 10 bertsio: [www.losrostrosdelgenio.com/10-sorprendentes-versiones-de-la-ultima-cena/](http://www.losrostrosdelgenio.com/10-sorprendentes-versiones-de-la-ultima-cena/)  
Museo eta arte bilduma birtualak: <https://sincopyright.com/museos-virtuales/>

## Proposamenaren garapena

### Aurkezpena

Mikel Cabrerizoren lanak (Atlas eta/edo Teobroma) ikusi eta aztertuko ditugu, oinarritzat dituen obren irudien laguntzaz. Honelako galderak erabiliko ditugu: Proposamen horietan, nola aldatu ditu jatorrizko lanak? Zer alderdi aldatu dira? Zer estrategia eta teknika erabili ditu horretarako? Aldatu al dira esanahiak edo zentzuak? Zer buruzkoak dira obra horiek? Artea arte izateko bakarra eta originala izan behar du? Non datza obra horien balioa?

Artelan bat zer den eztabaidatuko dugu hainbat kontzepturi buruz hausnartzuz, hala nola originaltasuna, erreproduzigarritasuna eta jeinutasuna. Jabetzearen kontzeptua sartuko dugu, artearen nozioa bera aldatzen duen praktika garaikide gisa.

### Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

**1.** Artearen historiaren irudi bat aukeratuko dugu, gustuko dugun bat. Liburutegian, etxean edo Interneten bilatuko dugu (ikusi aipamenak). Informazioa bilduko dugu: egilea, izenburua, data, teknika, testuinguru historikoa.

**2.** Obrak partekatu, eta mural bat egingo dugu irudiekin eta bildutako informazioarekin. Horiei buruzko adjektiboak idatziko ditugu (dibertigarria, bitxia, ederra, txundigarria, zorigaitzokoa...).

**3.** 3 edo 4ko talde txikietan, hainbat saio emango ditugu obretako bat lantzen. Gure eguneroko testuinguruetara ekartzea izango da helburua eta, horrela, haren esanahiak eta erabilerak aldatuko ditugu.

Galdera hauek bota ditzakegu:

Nola lotu obra gure gorputzekin? Nola eraman gure espazioetara? Eta eramangarri, jangarri edo iragankor bihurtzen badugu? Zer formatu eta euskarri erabil ditzakegu horretarako?

**4.** Ekintza-lerro bat adostu, lanerako plan bat egin (erabili beharreko materialak, teknikak eta denborak, zereginen banaketa, kanpoko balizko laguntza...), eta gauzatu egingo dugu.

Adibideak:

- Irudia ahalik eta leialen irudikatu, eta argazki bat aterako dugu.

- Irudiaren txantilo batekin eta spray edo pinturarekin, graffiti bihurtuko dugu.

- Bizkotxo bat prestatu, irudia bera edo haren zati bat duten gailetak egin, eta zeremonia moduko askari handi batean jango ditugu.

- Irudiaren (edo irudiaren zati baten) bertsio bat egingo dugu leku publiko batean, material galkorrekin (irina, txokolatea, loreak...).

**5.** Jabetzea erabiltzen duten artisten lanak ikustea lagungarria izan daiteke (ikusi aipamenak).

**6.** Emaizak dokumentatu, eta izenburu berriak jarriko dizkiegu.

### Ondorioak eta lerro irekiak

• Lanak gure artean partekatuko ditugu, arreta berezia jarriz esanahiak, zentzumenak eta erabilerak aldatzeko moduari. Halaber, bertsio berriak nola eragin diguten hausnartzeko dugu, nola aldatu den lanekin dugun harremana.

• Egindakoa erakusteko modu bat adostuko dugu: erakusketa fisiko edo birtual gisa, mural baten formatuan edo katalogo baten bidez.

• Eta obraren zentzua aldatzen saiatzeko, irudian zuzenean esku hartuko bagenu? Collage teknika erabiliko dugu, eskuz egina edo digitala (gifak, memeak...).